
MENDEBALDE KULTUR ALKARTEA'RI

Ba-genkian, ez ain antxiñatik. Mendebalde deritxon talde bat sortu dala eta talde onen sortzaille Alfonso Irigoien zala, eta gaur berton, azillaren 14'an irakurri dot DEIA'n talde oneri begira barri-emote luze ta zabal bat, Juan Luis Goikoetxea adiskide aundiaren argazkia lau eratan agertzen dala, baita ertz baten Amuriza adiskidearena be.

Lenengo ta bein beiokie ZER egiten dogunen izenean eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izenean agurrik beroena Mendebaldekideai eta agurragaz batera gure esker ona Bizkai'ko euskerearen aide jokatzeko datozelako. Guztion artean lortuko al dogu gure euskereak bizirik irautea. Bizkaia'n Bizkai'koak.

Alfonso Irigoien'eri buruz orain-artean be esan dodana gogoratuko dot barriro: Deustu'ko Ikastetxe Nagusian izan zan eta gaia Bizkai'ko euskerea eban batzar ospetsu baten, Alfonso'k Bizkiareari buruz berba egiteko batua erabillega entzuten neban eta esan neutson: Alfontso! Bizkaia'n eta Bizkaieria gai dauan batzar onetan zuk zergaitik egiten dozu berba batuz? Eta bere erantzuna auxa izan zan: "Nik erran dut eta zuk ulertu duzu". Orrelan aterako ete dogu aurrera gure bizkaieria?

Eta DEIA'n gaur irakurri dodan barri-emotean be beste orrenbeste ikusten dot: Bizkaiko euskereari buruz berba egiteko batua darabillega. Danean ez ba'da, geienean. Orra or Larramendi'ri egiten geuntson azterketa bera egin-bearra. arek erderaz goraltzen eben euskerea eta orain batuz goratzen dogu bizkaieria! Ai! Bizkai'ko gure idazleak! Nondik nora dabilzan!

DEIA'ren orri beratan eta barri-emote onen barruan dator Amuritza'ren eritxia. Eritxi au ezagutzen gendun, bai Iruña'n dan erri-aurreko Ikastetxe Nagusian izandako alkar-izketatik eta bai beste etorbide batzutatik. Amuritza besteak baiño zuzenago dabil. Emen beintzat bizkaieraz idazten dau bizkaierari buruz. Nik zeozer aurka esateoktan, atxearen arazoa aitatuکو neuke: Bizkaieriak ez dau

bear atxerik, batua bear ba'da be, atxea baturako kaltegarria da. Zergaitik ez bein betiko alboratu alperreko atxe ori? Kalteak bai eta onurarik ez dakarren atxe ugari ori? Baiña itzi daigun arazo au oraingoz, lenengo sortu bear doguna bizkaieria bizirik ateratea da eta orretan batera lan egin geinke. Egunen baten atxea kentzea bururatzen ba jaku,erabagia artzea da naikoa, ez dago ikasketa barririk egin bearrik. Guk atxe barik jarraituko dogu.

Mendabalde'ren laguntzailleak be agertzen dauz Juan Luis Goikoetxea adiskideak (Kintana, Alfonso'ren maillan itzita): Adolfo Arejita adiskidea lenengo, eta gero Jazinto Iturbe, Iñaki Sarriugarte, Rikardo Urrutia, Iñaki Gaminde, Maribi Unamuno, Eneko Barrutia, Kaltzakorta markinaarra ta abar...Or agertzen diran izen batzuk adiskideak doguz eta iñoz lankideak be izan dira. Poztu egiten gara bizkaieraren arazoa gogoz artu dabelako.

Gaurko idaz-lan onegaz, nire ustez, lendik be argi izan diran arazo batzuk gogoratzen dira. Berba gitxitan esateko: Bizkai'ko euskerearen aide lan egiten dogunok zati bitan gagoz, batzuk atxeagaz eta beste batzuk atxe barik idazten dogunak. Bizkaieraz idazten ez dabenak be or dagoz. Guztioek ekin daigun Bizkai'ko gure euskerearen aide, erri-aurreko erakundeetan, ikastegi guztietan, aldizkarietan, liburuetan, albiste-bide guztietan (batez be ETB'n) eta bizkaieria bizi dan artean, euskerarik erdia bizi da. gitxienez erdiak diran ezkeror bizkaieraz berba egiten daben euskaldunak. Beste euskalkiak be aurrera egin bear dabe eta egiten diardue, baiña batez be naparroa ta iparraldeko euskalkiak dauke gure laguntzaren bear-izanik aundiena. Gipuzkoera batuak berak daroa aurrera, geien bera sartu dalako batuaaren barrura.

Guk jarraitu daigun gure bizkaieria zaintzen eta indartzen, bizkaieraz berba egin eta idazten.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!